

OSTEGUNA

2019/12/19

7. urtea, 1.163. zenbakia

107,6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

IMANIOL GARCIALANDA



TOLOSA FUTBOL FESTA

Espainiako Errege Kopako partida jokatu du Tolosa CF-k Valladolid taldearen aurka, eta 0-3ko emaitzarekin galdu; irabazi ez arren, festa giroa gailendu zen atzo, Berazubiko estadiora gerturatu ziren zaleen artean // 5

«Inoizko aurrekontu sozialena» onartu dute 2020rako

6,8 milioi euroko aurrekontua izango du Villabonako Udalak; gizarte zerbitzuetan %28ko igoera izan da // 2

«Basamortuan hiltzea baino hobea da aberriaren alde hiltzea»

SAID BOUSHAD SAHARARRA

Gaurtik astelehenera 15. Biltzarra egingo du Fronte Polisarioak // 3

Biharko astekaria eta gero 2019ko Urtekaria izango dugu abenduaren 27an, eta hurrengo alea urtarrilaren 8an argitaratuko dugu.

Gabonetako
azoka
berezia

Abenduak 21
Trianguloa Plaza,
Alondegia Plaza
eta Plaza Zaharra



«Inoizko aurrekontu sozialena» onartu du Villabonako Udalak

EH Bilduren aldeko eta EAJ eta PSE-EEren kontrako botoekin onartu da 2020ko aurrekontua; EAJk 26 zuzenketa aurkeztu ditu eta ia denak atzera bota dira

Jon Miranda Amasa-Villabona

Villabonako Udalak 6,8 milioi euroko aurrekontua izango du 2020an. Aurtengoarekin alderatuta gizarte zerbitzuetako diru sailean %28ko igoera egongo dela nabarmendu du udal gobernua eta Xabat Laborde alkateordeak azpimarratu du etxerretako laguntza zerbitzuan baliabide ekonomiko gehiago jarri behar izan dituztela aurtengoa, 185.000 euro, «2019ko diru sailarekin alderatuta, %134 gehiago». Arantxa Lopez, gizarte zerbitzuetako arduradun zinegotziak arlo honetan egindako ahalgina azpimarratu du: «Geroz eta adineko pertsona gehiago gerturatzen zaigu laguntza eske eta bakar bat ere ez dugu bazterrean utziko, azpiegiturak beharrean pertsonak jartzen ditugu guk erdigunean».

Besteak beste, politika feministak garatzeko 30.000 euro bideratuko dira aurtengo aurrekontuan eta Labordek udal sail batzuetan izango den gorakada azpimarratu du: «Euskaran %18a, kirol sailean %5a eta kulturaren %3a». Udal gobernuak ekarpenetan %25eko murrizketa egin dutela aipatu du alkateordeak, besteak beste, aholkularitza orokorrean, alkatetzako dietetan eta alderdi politikoetako

ekarpenetan. «Funtsezkoak ez diren gastuak kendu eta inertziagatik egiten ziren beste hainbat alboratuta, dezente aurrezpena egin ahal izan dugu», gaineratu du Labordek. Hauteskunde programan hartutako konpromisoak bete eta aurrekontu «orekatu eta aurrerakoia» prestatu duela aipatu du EH Bilduk.

HERRITARREK ERABAKITAKOIA

Udalak 740.000 euro bideratuko ditu inbertsioetarako eta beste 400.000 euro zertan gastatu erabakiko dute herritarrek, parte hartze prozesu baten bitartez. «Herri galdeketa batean amaituko da prozesu zabal eta sakon hori eta gerakinetik jasoko da erabakitako proiektua egiteko dirua. Herritarren parte hartze batzordean saiatuko gara oposizioarekin prozesuak izango dituen metodologia eta epeak adosten».

Oposizioa eta udal gobernuaren artean adostasunik ez da egon, ordea, 2020ko aurrekontua onartzerakoan. 26 zuzenketa aurkeztu ditu EAJk eta auzitan jarri ditu EH Bilduren udal gobernuak proposatutako inbertsioetako asko. Besteak beste, argiteria berriztatze jarritako 50.000 euroak, etxebizitza politikara bideratutako 30.000 euroak edota Amasara joateko oinez-

koentzat bidea egiteko proiektua idazteko 15.000 euroak. Beste lehenetasun batzuk aipatu ditu Patxi Agirre jeltzaleak, adibidez, Etxeondoko plaza berritzearen beharra. Aurreko legegaldian abiatutako proiektuei heldu eta aurrekontuan txertatzeko eskara ere egin du zuzenketen bitartez: Txermingo aparkalekua egokitzea eta Maiatzaren Lehena estaltzea daude proiektu horien artean.

Azkeneko bi proiektu hauek ez dituztela baztertzen nabarmendu du Beatriz Unzué alkateak eta parte hartze prozesuan herritarrek horrela erabakitzen badute, 2020an gauzatuko direla gogorazi du. Gainerakoan, jeltzaleek aurkeztutako 26 zuzenketatik 25 atzera bota ditu EH Bilduren udal gobernuak, horietako baten bat PSE-EEko zinegotzi bakoitzaren botoaren laguntzarekin.

Maria Luisa Arijak zinegotzi sozialistak EH Bilduk aurkeztutako aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu du, «herriarentzako proiekturik ez edukitzeagatik eta EH Bilduren bueltako elkarrekin diruz laguntzeagatik». Udalbiltza bezalako erakundeak laguntzea, «diru publikoaren erabilera okerra» egitea dela uste du Arijak eta bere iritzian horrek erakusten du «EH Bilduk bere aldekoentzat bakarrik gobernatzen duela, interes orokorraren kaltetan».



Asteartean egindako osoko bilkuran, udalbatzako kideak botoa ematen. J.M.

Amasa-Villabonarako proiektu eta inbertsioak negoziatzeko orduan, udal gobernuaren borondate falta iradoki du zinegotzi sozialistak, eta are gogorrago jardun du Agirre jeltzaleak: «Udal gobernuak ez du hitz egiteko ahalmenik erakutsi, ez du gutxieneko begirunerik izan gainerako alderdiekin». EAJko udal taldearen esanetan, aurtengo aurrekontua «atzeragarria da eta ez ditu kontuan hartzen herritarren benetako beharrak». Aurreko legegaldiarekin alderatuta atzera egin izana egotzi dio EAJk EH Bilduri.

Nahiz eta alderdi jeltzaleak aurkeztutako zuzenketen aurka bozkatu duen EH Bilduk, ekarpenetako batzuk barneratu ditu aurrekontuan. EAJk zuzenketa bakoitza finantzabide jakin batekin lotu du eta zioarekin ados egonagatik, ekarpena zein diru poltsatik egin adostu ez dutenez bi alderdiek, udal gobernuak ki-deek dagoeneko aurrekontuan txertatutakoaren aurka bozkatu dute. Egoera «paradoxikoa» dela nabarmendu du Unzuék eta mezua luzatu die jeltzaleei: «Ez zenuen eztabaidarako giroa nahi gaurko osoko bilkuran, agerian geratu da. Guk zuzenketa bakoitzaren aurka bozkatzeko bilatu duzue hasieratik, erreala ez den irudi bat emateko».

‘OLENTZAROREN BIDEA’, LEHEN ALDIZ

Etxeondotik abiatu eta Arantzabira bitarte, pertsonaia eta ohitura ezberdinak irudikatuko dituzte, hiru ordu laurden iraungo duen ibilbidean. Euskal usadioak, koplak edo esaera zaharrak izango dira ardatz nagusiak. Olenzero ere agertuko da eta umeek harentzako prestatutako gutunak eraman ahal izango dituzte. 40-50 pertsonako txanda ezberdinak antolatu dira abenduaren 22an, igandean, 17:00etatik aurrera. Ordu erdiro aterako dira taldeak eta azken txanda, 19:30ekoak, helduei zuzendutakoak izango dira.

Amasa-Villabonan aurtengoa, abenduaren 24an, kantu erronda bakarra egingo dute. Garazi Bengoetxea kultur zinegotziak aipatu duenez, «garrantzitsua iruditzen zitzaien ikastetxeen arteko banaketarekin haustea. Horretarako, goizetako kantu-erronda horiek alde batera utzi, eta arratsaldean guztiak batera ateratzeko proposamena luzatu genien ikastetxeei. Baiezkoa eman zigituen eta aurrera egin genuen».

Abenduaren 24an, asteartean, 16:15ean jarri dute hitzordua Errebote plazan eta herritar guztiak parte hartu ahal izango dute. Plazatik, Kale Nagusian behera, Iru Aldetariño joan ondoren, Kale Berrian barrena, Etxeondoraino joango da kantu erronda. Han batuko zaizkie Olenzero eta Mari Domingi. Berriz ere, herrigunera bueltan, Santio egoitzan geldialdia egin eta Amalurra plazan amaituko da ekimen herrikoia.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari eta sukaldaria. Tolosako sagardotegi batean, txotx denboraldirako, langilea behar da zerbitzari eta sukaldari lanak egiteko. Interesa dutenek dei dezatela 660 65 43 17 telefonora.

Ile apaintzailea. Tolosako Irtika ileapaindegia esperintziadun ile apaintzailea behar du, arratsaldeetan lan egiteko, lanaldi erdian. Interesatuak

deitu 943 50 84 93 telefono zenbakira.

Pisukide bila

Irura. Bi pertsonentzako etxebizitzan, gela bat alokagai dut. Argitsua, berria eta altzariekin. Pertsona ez erretzailea eta arduratsua izatea beharrezkoa. 350 euro, eta gastuak erdibana. Kontakturako, deitu 606 0115 26 telefono zenbakira.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburra.eus-en



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

«Hobe da aberriaren alde hiltzea basamortuan hiltzea baino»

SAID BOUSHAD GIPIZKOAKO SAHARAR KOLEKTIBO ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Fronte Polisarioak Saharako askapen mugimenduari 15. Biltzara egingo du gaurtik astelehenera; erreferendumerako data zehaztean dagoela konponbidea dio

Leyre Carrasco Irura

Mendebaldeko Sahara Marokoren menpe jartzeko helburuarekin, 1975. urtean, Ibilaldi Berdea gauzatu zen. Bost urte geroago, Hassan II.a Marokoko erregea Lotsaren horma izenekoa eraikitzen hasi zen. Geroztik Sahara hiru zatitan banatuta geratu da: alde batetik, Sahara okupatua deritzona dago, bestalde askea eta azkenik, Aljerian kokatutako errefuxiatuen kanpalekuak. Said Boushadek 16 urte zituenean Ibilaldi Berdea gertatu zen, eta bere lurraldea utzi eta errefuxiatuen kanpalekuetara joan behar izan zuen. Duela 16 urte kanpalekuak utzi eta bere familiarekin batera Espainiara joan zen. Bertako hainbat herritan bizi ostean, duela 6 urte Euskal Herrira etorri zen, eta gaur egun Iruran bizi da. Tolosaldea Sahararekin elkarteko kide izatearekin batera, Gipuzkoako Saharar Kolektibo Elkarteko Lehendakaria da.

Espainiako Gobernuak Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara ez hurbiltzea gomen datu du, segurtasun falta argudiatuta. Zergatik?

Sahararrok ez dugu Espainiako Gobernutik ezer onik espero, Marokoren konplizea baita. Espainiako Gobernuak errefuxiatuen kanpalekuetan eraso terroristarista izateko arriskua zegoela esan zuen, baina, ez da horrela. Sahararrak ez gara terroristak, eta errefuxiatuen kanpalekuetan ez dago segurtasun faltarik. Sahararrak estatu terrorismoa jasaten ari dira, eta Espainiako Gobernuak ez du ezer esaten. Venezuelako eta Kubako giza eskubideak defendatzen ditu, baita inguruko beste hainbat herritakoak ere, baina, sahararrenak ez. Hori bai, segurtasun ezaren mezua zabaldu nahi izan badute ere, jendea lehen baino indar

handiagoz joan da kanpalekuetara. Eta, orain Espainiako Gobernuaren zain gaude, ezkerreko gobernuak izango dela esaten baitute, beraz, ikusiko da betetzen den ala ez.

Fronte Polisarioak 15. Biltzara egingo du gaurtik astelehenera. Zer erabaki hartuko dituztela uste duzu?

Saharar guztiok itxaropen handia dugu irtenbideren bat adostu dezaten. Elkartetik bi ordezkari izendatu ditugu kongresuan parte hartzeko, eta egin behar dutenari buruz gure iritzia emateko. Espero dugu konponbidea ez geratzea NBERen eskuetan, gaia berrikusteko ordua baita. Egoera honetatik ateratzen lagunduko digun irtenbidea behar dugu, bakea sinatuz, erreferenduma egiteko eguna zehaztuz. Hori ez bada ematen, gerrara itzultzea aurreikusten dugu, inori mesederik egiten ez dion arren. Gainerakoan, eskuak gurtzatuta izango gaituzte basamortuan, eta hobe da aberriaren alde hiltzea, basamortuan hiltzea baino.

Non burutuko da biltzara?

Tifaritin egingo da, Mendebaldeko Saharan dagoen lurralde askean. Biltzara Fronte Polisarioak duen indarra erakusteko



LEYRE CARRASCO

edo presioa egiteko modua da. Aipatu moduan, aske dagoen eremua da, eta sahararrak bizi dira bertan, baina, Marokok ez du nahi eremu horretan bertakak finkatzea, pixkana bereganatu egin nahi dituztelako. Une honetan, beraz, Tifariti Saharako hiriburua izango litzateke, askeen dagoen eremua hori baita.

Oraingo Saharako egoera politikoa nola azalduko zenuke?

16 urteko gerra bizitza egokitu zitzaigun. Horren ostean, NBE sartu eta bake-su-etena adostu zuen 1991. urtean. Baina gatazkak jarraitu du eta konponbide baketsuaren bila aritu gara. Baina pazientzia agortzen ari zaigu. Izan ere, 28 urte eta gero, NBEk ez du irtenbiderik aurkitu, eta Fronte Polisarioak, erbestean hezitako belaunaldiak ditugula kontuan hartuta, irtenbidea nahi du. Gureak diren lurra itzultzeko eskatzen ari gara.

inork ezingo luke hor bizi. Pentsa, urik gabe, udan 50 gradura iristen den lekuan, edota neguko tenperatura gogorretan haimean edo adobezko etxeetan. Neurri handi batean nazioartetik iristen den laguntzarekin bizi da jendea, bertan ezin baita ezer ekoiztu. Kanpotik bidaltzen dituzten laguntzetatik jaten du jendeak. Hezkuntzari dagokionez, inguruko herrialdeetara joaten dira bertan ikasi eta titulu bat izan dezaten. Baina ikasketak amaitu eta itzultzen direnean, konturatzen dira kanpalekuetan horrek ez diela ezertarako balio. Egoera, alderdi guztietatik, etsigarria da.

Zure kasuan, hona bizitzera etortzea erabaki zenuen.

Hainbat urte hemen bizi ostean, hemengo bizimodua Saharan daukaguna baino hobe dela ikusi nuen. Batez ere, haurren hezkuntzari dagokionez. Errefuxiatuen kanpalekuetan bizi ostean, gainerako guztia oso erraza egiten zaizu. Emigratzea zaila da, baina emigrazio batetik bestera gabiltza, errefuxiatuak garelako. Aurreko emigrazio batetik gatoz; gure etxea eta lurraldea okupatutako eremuetan utzi ostean, errefuxiatuen kanpalekuetara joan behar izan genuen, eta urte askoan bertan bizitzea egokitu zaigu. Egoera oso zaila da han, eta horregatik etorri gara hona, gure ondorengoek bizitza hobe izan dezaten.

Zer baldintzatan bizi dira errefuxiatuen kanpalekuetan?

Oso baldintza zailak dira. Hutsuneak asko dira, eta batik bat, elikagaiei eta hezkuntzari dagokionak. Basamortuan, inor bizi ezin daitekeen basamortuan, egoera txarrean bizi da jendea. Gizarte antolaketagatik ez balitz,

zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

**DELTECO GIPIZKOIA
BASKET - HLA
ALICANTE
partida ikusteko**

Abenduak 29, 18:00etan,
Donostia Arena.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Ataria bertso jaialdia 2020

Amaia Agirre
Gai jartzailea

Maialen Lujanbio Amets Arzallus Oihana Iguaran Alaia Martin Julio Soto Andoni Egaña

SARRERAK ATARIKIDEENTZAT: 10€

Atariaren bulegoan erosi zure sarrera:
Abenduak 16, 18 eta 20an: 09:00 - 13:00
Abenduak 17 eta 19an: 15:00 - 19:00

Helbidea: San Esteban, 20, Tolosa.
Oharra: Atarikideek 10€tan 2 sarrera erosi ditzakete eta hortik aurrera 12€tan, gehienez 10 sarrera. Atarikide ez direnentzat berriz, sarrerak urtarilean jarriko dira salgai.

Urtarrilak 18, larunbata arratsaldeko 18:00etan.
Tolosako Leidor antzokian

Langileen «potentzia kolektiboa» sortzeko sarea aurkeztuko dute

Bihar izango da Tolosaldeko Autodefentsa Laboraleko Sarearen lehen bilera, 19:00etan, Tolosako kultur etxean

I. Urkizu

Krisiarekin batera «ofentsiba kapitalista» hazi egin dela argudiatuz, etorkizuna «ilun» ikusten dute egitasmoaren sustatzaileek: «Lan eta bizi baldintza gordina goak datozkigu». Horrela, aurreikuspen horri eutsi, eta foro berri baten plazaratzea izango da, bihar, 19:00etan, Tolosako kultur etxean: Tolosaldeko Autodefentsa Laboraleko Sarea aurkeztuko dute.

«Langabezia handia, kontratu prekarioak, engainuak, ordaindu gabeko soldatak, ordutegi eta erritmo bidegabeak edota zapalkuntzak eguneroko ogia bihurtzen ari dira», autodefentsa laboraleko sareko kideen arabera. Baldintza horien bidez langileak «esaneko eta bananduta» nahi dituztela salatu dute, elkarren artean lehiatuz.

Eta, hain justu, hori iraultzeko asmoz sortu dute sare berria: «Badakigu bateratuta indar handiagoa dugula». Potentzia kolektiboa sortu nahi dute, eta borroka taldean egiteko gaitasunik ez duten sektore eta langile norbanakoei ere tresna bat eskaini borrokarako.

Arriarango langileek borrokari ekin diote, itun propioa lortzeko

Langileen ustez, 1.000 euroko soldatak ez du bat egiten gasolindegiko lan baldintzekin; lehen bilerak eginda, enpresak ez die hitzarmen propioa onartu

Itzea Urkizu Arsuaga Tolosa

N-1 errepideko noranzkoaren arabera, Tolosako azken edo lehen sarreran dago Arriaran gasolindegia. 1949an jardunari ekin da, gaur egun sei langile aritzen dira bertan: bost kontratu finkoekin, eta bat errelebo kontratuarekin. Bada, azken asteotan, langile horien protestaz eta aldarritz bete dira eskualdeko hainbat txoko.

«Soldata duinago bat nahi dugulako hasi gara protestan. 1.000 euroko soldata dugu, eta asteburu eta jai egunetan ere lan egin behar izaten dugu». Xabi Labaien ELAko ordezkari sindikalaren ustez, ordainsari hori ez da nahikoa gaur egungo beharrei erantzuteko, eta horrek mugitu ditu.

Dena den, abiapuntua soldata igoeraren eskaria izanagatik, Arriaran gasolindegiko langileek helburu zehatz bat jarri diote, hasi berria duten borrokari: enpresako itun propioa lortzea. Momentuz, bi bilera egin dituzte gasolindegiko enpresaburuekin, eta haiek ez diete enpresa hitzarmena sortzeko aukera onartu: «Bigarren bileran beren proposamena jarri ziguten mahai gainean, ustez baldintzak hobetze-



Badira aste batzuk, Tolosako Arriaran gasolindegiko langileak protestan hasi zirenetik. ITZEA URKIZU

ko, baina barregarria da eman diguten aukera».

Horrela, beraz, borrokari eustea erabaki dute. Aldarrikapen pankartak zintzilikatzea izan da lehen pausoa, eta Facebook sare sozialean ere zabaldu dute profila –Arriaran Avia Lagileak–, informazioa zabaltzeko. «Azken finean, Arriaran herriko gasolindegia da, eta denek ezagutzen gaituzte. Zentzu horretan, elkartasun izugarria jasotzen ari gara bezeroen, herritarren eta auzoko bizilagunen aldetik; oso eskertuta gaude».

Momentuz, beren protestekin jarraituko dute Arriarango langileek, enpresa hitzarmen propioa lortzeko. Inguruan badituzte

«1.000 euroko soldata dugu, eta asteburu eta jai egunetan ere lan egin behar izaten dugu»

XABI LABAIEN
ELA SINDIKATUA

erreferentziatzeko borroka, Tolosaldea Buseko langileena, kasu. «Argi dago, borroka eginez gero,

helburuak lortu egiten direla».


Bide horretan, Xabi Labaien ELAko ordezkari sindikalak azaldu du, lan talde osoa ados dagoela, aurrera begira balizko lanuzte edo greba egiteko: «Enpresak neurri gogorak hartuko lituzke kasu horretan, baina presioa egin beharra dago gure helburua lortzeko».

Horrenbestez, martxan jarraitzeko asmoa dute, enpresaburuen mugimendu berri baten zain: «Beraiek badakite zertan ari diren, eta gu zertan ari garene ere bai. Haiena da azken hitza».

2020ko
mahai egutegiak
eskuragarri.

Pasa zaitzete
hauen bila

San Esteban, 20 Tolosa 20400



Egin zure erosketak Ibarra
abenduaren 9tik urtarrilaren 3ra
Sariak:



Zozketa eguna: Urtarrilak 3, 20:00etan.



*Sariak ez dira inoiz eskudirutan emango

Festa nagusitu da

Tolosa CF-k galdu egin du Lehen Mailako Valladoliden aurkako Errege Kopako kanporaketa, 0-3, Berazubi futbol zelaian; 1.600 zale elkartu dira bertan eta jai giroan bizitu dute partida historikoa

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF-ren historiarako geratuko den partida izan zen atzo bitakoa Berazubín. Valladoliden aurka Errege Kopako kanporaketa jokatu zuen, lehenengo aldia zen Lehen Mailako talde baten aurka partida ofizial bat jokatzen duena. 1.600 zale elkartu ziren Berazubi estadioan, eta festa izan zen nagusi, etxekoek kontrako emaitza jaso arren.

Azkenean 0-3 galdu zuen Tolosa CF-k, baina lehen zatian eutsi zion norgehiagokari. Hain justu, 20. minutuan jaso zuten lehen gola urdinek, baina atsedenaldira joan aurretik ondo aritu ziren zelaian. Bigarren zatia- ren hasieran, 11. minutuan, iritsi zen bigarren gola eta partida ia erabakita geratu zen, hortik aurrera Valladolidek neurraketa kontrolatu baitzuen baloia mugitzeko bere kalitatea erakutsiz. 19. minutuan sartu zuten aurkariak hirugarrena eta partidari buelta ematea ia ezinezkoa bihurtuz.

Ez du posible izan Tolosa CF-k aurrerago egitea Kopan, baina denboraldi hasieran ametsa zena egi bihurtu zen atzo. Lehen Mailako talde baten aurka jokatzea, eta Berazubi estadioa horrelako jendetzarekin ikustea. Orain ligan arreta osoa jartzeko ordua iritsiko zaio talde urdinari, Hirugarren Maila ez baita nolana hikoia.

Atzoko partidaren aurretik, bi taldeetako ordezkariak eta hainbat gonbidatu, tartean Tolosa CF-ko lehendakari ohiak, elkartu ziren Iurre elkartearen, solasean aritu eta ondoren elkarrekin partidara joateko.



Partida hasi zuten Tolosa CF-ko taldekideak. I.G.L.



Ikusmina sortu zuen Tolosa CF eta Valladolid arteko partidak. I.G.L.



Ander Avellaneda Tolosa CF-ko entrenatzailea partidaren une batean. I.G.L.



Jende ugari elkartu zen futbol zelaia inguruan. I.G.L.



Harmaila nagusia beteta egon zen. I.G.L.



Bi taldeetako ordezkariak eta gonbidatuak, lurre elkartearen. I.G.L.

Bigarren itzulian, egurra

Urteko azken partida zen eta gainera zuzeneko aurkari baten etxean jolasten genuen. Oiartzun 3 puntura geneukan, irabaziz gero harrapatu egiten genituen. Azken emaitzek eta zulutik ateratzeko beharrak motibaturik, inoiz baino gogotsuago geunden

partidurako, ahaztu gabe Oiartzunek azken 5 partiduetan puntuatzea lortu zuela.

Partida hasiera mugitua izan zen, hasi bezain laster aurretik jartzeko aukera izan genuen, baina langa jo zuen baloia. Hortik gutxira aurkako penaltia ere izan genuen, baina Oiartzungo jokalariek atetik gora jaurti zuen.

Lehen zatian dezente sufritu genuen baina atsedenaldira hutsean joatea lortu genuen.

Bigarren zatia hasi eta segituan etorri zen aurkariaren lehen gola, joko aldaketa azkar batek ezustean harrapatu gintuen. Markagailua kontra izan arren borrokan jarraitu genuen eta horrela banakoa lortu genuen. Poztasunak ez zigun gehiegi iraun, ordea, izan ere segidan iritsi zen beraien bigarrena, zelai erdian izandako falta baten ostean. Par-

tida amaieran berdintzeko aukerak izan genituen baina ez zen gola iritsi eta 2 eta 1ekoarekin amaitu zen partida.

Golge gogorra izan zen, azken asteotan ondo entrenatzen aritu gara eta emaitzak ekarri dizkigu, baina, hala ere, ez dugu lehen buelta jaitziera postuetatik kanpo bukatzea lortu. Orain ia hilabete dugu ligako hurrengo partidarako, gogor lan egingo dugu bigarren buelta honetan egurra emateko. Eutsi neskak!



Aulkitik
Ainhitze Aranalde
Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Altzoko Ostatuaren ustiapena lehiaketara atera du udalak

Interesatuak urtarrilaren 13a izango dute eskaintzak aurkezteko azken eguna; hamar urteko kontratua egingo zaio esleipendunari

E. Maiz Altzo

Altzoko Udalak herriko ostatuaren ustiapena lehiaketara atera du. Altzoko ostatuan taberna, jattetxea, denda eta informazio puntua eskaintzeko zerbitzuak ustiatu beharko ditu esleituak, eta kudeatzeaz gain, instalazioak mantendu beharko ditu.

Lehiaketa bidez aukeratua izango da ustiapena aurrera eramango duena, eta kontratuaren iraupena 10 urtekoa izango litzaiteke. Pertsona fisiko eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, eta esleipendunak 2.000 euroko bermea jarri beharko du. Interesatuak urtarrilaren 13a izango dute beraien eskaintzak aurkezteko azken eguna.

Proposamenak Altzoko udal txean aurkeztu beharko dira, astelehene ostiralerara, 09:00etatik 14:00etara. Udaletik adierazi dute, kontuan hartzeko udal bulegoak itxita egongo direla abenduaren 24tik urtarrilaren 1era bitarte, biak barne.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa bi kartazaletan banatu beharko da. A kartazalean, I. eranskina, kontratatze gaitasuna eta kaudimena aurkeztu beharko dira. B kartazalean, II. eranskina eta Lan Memoria, esleitzeko irizpideak eta lan proposamena. Informazio guztia Altzoko udal txean edo 943 65 24 13 zenbakira deituta lor daiteke.



ONKI XIN

«Guretzat musika arma bat da, aldarrikapenak komunikatzeko»

ZIGOR DZ MUSIKARIA

Alegiako Gaztetxean kontzertua eskainiko du Onki Xin taldeak, bihar, 22:30etik aurrera, Dupla eta Xatiro taldeekin batera.

Irati Saizar / Eneritz Maiz
Alegia

Alegiako Gaztetxeko 32. urteurreneko ekitaldiak azken txanpan sartu dira, eta bihar, kontzertuak izango dituzte. Onki Xin, Dupla eta Xatiro igoko dira gaztetxeko oholtza gainera, 22:30ean. Onki Xin taldeko kidea da Zigor Lampre Zigor DZ eta Fer

Apoarekin batera sortu zuen proiektua.

Guztia prest kontzerturako?

Bai, dena prest. Jada entsegu guztiak eginda ditugu, eta kantu berriak sartuta.

Fer Apoarekin batera sortu duzun proiektua da, baina zuzenekoetan beste batzuen laguntza ere izaten duzue.

Onki Xin, Fer eta nik osatutako

proiektua da, baina gero zuzenekoetan banda bat daramagu eta baterian Jon Ander Artola billabonatarra, eta Beñat Atorrastegi lesakarra aritzen dira.

'After Egon' da zuen bigarren lana, egotearen ondorena.

Hori da. Egotearen ondorena da egiten ari garena. Guk musika egiten disfrutatzen dugu. Fer eta biok etxean geratzen gara, eta ideiak biltzen ditugu eta nahiko azkar egiten dugu lan. Atera dugu lan hori, baina dagoeneko kantu berri bat egin dugu. Eten-gabe gaude gauzak egiten.

Etengabe sortzea gustatzen zaizue?

Bai. Pila bat gainera.

Lehen lanean errefuxiatuak izan zenituzten hizpide. Zer jaso duzue bigarrenean?

Lau kantu daude, eta *Dafne* abestia da singlea. «Jada ezer ez dut nahi» esaten dugu errepikan, eta bizi garen etsipen honetan kokatzen da. Gauzak ez doaz hobera, eta bakoitzak abestia entzuterakoan bere interpretazioa egin dezake. *Nahia* azken abestia, esaterako, Txile edota Kataluniako borrokez ari da, eta horiei eskainia da. Guretzat musika arma bat da. Guk egin nahi ditugun aldarrikapenak komunikatzeko, eta baita sentimenduak ere. Bi alde horiek jorratzen ditugu.

Gaur egungo gaiak bildu nahi izaten dituzue?

Gaur egungo gaiak betiko gaiak dira. Ematen du ez dugula aldatzen. Kantu zahar bat hartzen duzu, eta gaur egun ere gaurkotua dago.

Bihar Alegian ariko zarete, zapaldua duzu inoiz oholtza hori?

Bai, oso aspaldi. Selektah Kolektiboarekin, ez naiz gogoratzen ezta urtea ere. Hemezortzi urte edo izango dira, eta geroztik, egona naiz musika jartzen. Gaztetxe aktiboa da, ezagunak ditugu eta gogoz nago.

Amezketako gimnasioko erabiltzaileek izena eman beharko dute

2020. urtean bazkide izaten jarraitu behar ez dutenek urtarrilaren 10a baino lehen giltza itzuli behar dute

E. Maiz Alegia

Amezketako Udala dagoeneko urte berrira begira jarri da, eta herritarrak kirola egitera bultzatu nahi ditu. 2020ko erabiltzaileei dei egin die; erabiltzen jarraitu, hasi edota utzi nahi dutenei.

Hasteko, erabiltzen jarraitu nahi ez dutenek giltza itzuli beharko dute udaletxean urtarrilaren 10a baino lehen. Bazkide izaten jarraitu nahi dutenek, berriz, dagokion kuota urtarrilaren 2tik 31ra bitartean ordaindu beharko dute, eta agiria udaletxean aurkeztu. Bi aukera jarri dituzte erabilerarako: urte osoko kuota ordainduta edo lau hiruhileko aukeran. 16 urtetik 65 urtera bitartekoek urte osoa 60 euro edo hiruhilekoa 20 euro ordaindu beharko dute; aldiz, 65 urtetik gorakoek, urtea 30 euro eta hiruhileko bakoitza 10 euro.

Aurten jarri dute gimnasio berria martxan, eta herritarrei ez ezik, Amezketan errolatuta ez daudenei ere erabiltzeko aukera eskaintzen die udalak. Amezketan errolatuta ez daudenen kasuan, urte osoak 100 euroko kostua du, eta hiruhilekoak 30 euro. Ordainketa udaleko kontu zenbakira egin beharko da.

Giltza adimenduna ematen diete bazkideei, eta lehena dohainik da. Hori bai, norbaitek giltza galtzen badu, berria egitea 10 euro kobratuko zaio.

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Irati Saizar Artola Tolosa

Tolosako Karmele mertzeriak tailerrak eskaintzen ditu 2014az geroztik, eta tailer horietan egindako lanak ikusgai jarri dituzte, egunotan, Aranburu Jauregian. Urtarrilaren 4a bitarte egongo da zabalik, arratsaldeetan, 17:30etik 20:30era bitarte.

Irakasle lanetan, besteak beste, Eva Garmendia tolosarra aritzen da bere ahizparekin batera, eta teknika ezberdinak lantzen dituzte.

Zer aurki daiteke Aranburu Jauregian?

Gehienbat, ikasleek egindako *patchwork*-eko lanak daude; baita puntuzko batzuk ere. Tailerra martxan jarri genuenetik hona egindako lanak dira. Izan ere, tailerretan parte hartzen duen jende asko lehen urtean hasi zen. Ideia polita iruditu zitzaidan lan horiek erakustea, eta jendeak ikustea zer egiten dugun.

'Patchwork' teknika aipatu duzu. Zer da zehazki?

Tela zati txikiak elkartuz mantak, alfonbrak, poltsak, motxilak... osatzen dira. Lan oso desberdinak egin daitezke: piktorkoak edota paisaiak; artistikoagoa da.

Hori guztia tela zati ezberdinak josiz?

Koloretako tela zati txiki desberdinak moztu eta berriro josten ditugu, diseinu oso ezberdinak eginez.

Josteko ze modu erabiltzen duzue?

Modu tradizionalan eskuz josten da, eta lehenengo horrela irakasten dugu. Baina makina ere erabili daiteke.

Mantak egiterako orduan, ordea, tela zati handiagoak behar dira?

Ez du zertan. Zati txikiekin ere moldatzen gara. Diseinuaren arabera, patrioiak egiten ditugu, eta patrioi horren arabera tela mozten dugu, eta elkartzen joaten gara.

«Koloretako tela zati txikiak moztu eta berriro josten ditugu»

EVA GARMENDIA KARMELE MERTZERIA TAILERREKO IRAKASLEA

'Patchwork' teknika erabiltzen dute Karmele mertzeriako tailerretan, besteak beste; mantak, alfonbrak, motxilak eta bestelakoak egiten dituzte, eta egun, erakusketan jarri dituzte Aranburu Jauregian.



IRATISAIZAR

Sormena ere lantzen duzue?

Bai oso ondo dator, bai sormena lantzeko, baina baita eskuak lantzeko ere. Gainera, tailerretara datozen horiek denbora bat pasatzen dutenez bertan, beste gauzak ahazteko tartea hartzen dugu.

Terapia modukoa ere bada, beraz?

Bai, noski. Taldeak elkartzen dira tailerrean, eta pertsonen artean oso giro ona sortzen da azken batean.

Tela zati ezberdinak jostea, koloreekin jolasteko aukera zabalagoa ematen du?

Bai, kolorea asko erabiltzen da. Gero, bakoitzaren gustuen arabera, lan berdina eginez baina

kolore desberdinak erabilia, gauza oso ezberdinak ateratzen dira.

Zein tela mota erabiltzen duzue?

Normalean, kotoia erabiltzen dugu, eta gehienbat tela amerikarrak dira. Egin behar dugun produktuaren arabera, ordea, motxilak egiteko, adibidez, larru

sintetikoak edota kortxoak ere erabiltzen ditugu.

2014an ireki zenuten tailerra. Zer dela eta hasi zineten?

Duela 35 urte ireki genuen mertzeria. Lehendabizi nire ahizpa hasi zen, eta ni 1992 inguruan batu nintzaion. Beti gustatu izan zaigu eskulana, jostea. Teknika berriak ateratzen ziren eta beti ikasten ari ginen. Ikusi genuen jendeak interesa bazuela tailer moduko batean edo hasteko. Horrela hasi ginen eta hemen jarraitzen dugu.

Arrakasta izan zuen lehen unetik?

Jendeari ideia asko gustatu zitzaien eta gaur egun, guztira, 80tik gora pertsona inguru etortzen dira klaseetara. Talde desberdinak ditugu, goizez zein arratsaldez etortzen direnak, astelehenetik ostiralera bitarte. Noizean behin, larunbatetan, tailer bereziren bat edo egiten dugu.

Zein da ikasle horien profila orokorrean?

Normalean, gehienbat emakumezkoak dira, 30 urtetik gorakoa.

Kuriositatea badago sormena landuz gauza bereziak egiteko?

Bai. orain arte ez zen oso ezaguna *patchwork* teknika hemen. Hasiera batean, jendeak soilik josteko ematen zuen izena, ez zuten imajinatzen noraino iritsi zitezkeen. Ni beti formatzen ari naiz, eta jendeari berritasun guztiak asko gustatzen zaizkio.

'Patchwork'-az gain, zein beste teknika lantzen dituzue?

Puntua eta kakorratza ere egiten ditugu. Talde txikiak izaten dira, bakoitzak bere maila du, eta bakoitzari bere lanarekin laguntzen diogu. Antolatzen ditugun egun berezietan, lan zehatz bat proposatzen dugu, eta interesa duena soilik apuntatzen da. Egun horretan bai, egun horretan esandakoa egiten dugu.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 BILBOKO ARTE EDERRETAKO

MUSEOA
Bi lagunentzako bina sarrera



www.museobilbao.com/eu • BILBO
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera



Anoeta pasealekua, 24 • DONOSTIA • 943-46 44 04
www.eltxuri.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 EMARIAK liburua

Hiru ale



943-844 432 • kalaka@kalaka.eus
www.kalaka.eus/denda/
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.



OSTEGUNA, 2019KO ABENDUAK 19

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

«Betiko turroiak dauzkagu, eta urtero produktu berriak ateratzen ditugu»

RAFA GORROTXATEGI GOZOGILEA

Rafa Gorrotxategi prest dago Gabonetan mahaiak postrez betetzeko. Aurten, berrikuntza modura, ardi latxaren esnearekin, eztiarekin eta intxaurrekin egindako turroia atera dute.



IRATIURDALLETALETE

Noiztik ari zarete gozogintzan?

Gure aiton-amonak 1925ean etorri ziren Zegamatik, eta Plaza Zaharrean gozotegia eta txokolategia bat hartu zuten. Aitonarena izan zen lehen belaunaldia, aita-rena bigarrena, nirea hirugarrena eta laugarrena ere indartsu dator; seme batek lau urte egin ditu Basque Culinary Center-en eta bestea ere pastelgintza ikasten ari da.

Zein produktu eskaintzen dituzue?

Udazkenetik aurrera, gozoen kontsumoa biderkatu egiten da. Salmenten ia %70 irailetik aurrera egiten dugu. Udaberrian, esaterako, ezkontzetarako pastelak egiten ditugu, eta bertako hainbat hotel eta txakolindegirekin

egiten dugu lan. Gainera, batzuetan gertatzen da Tolosako jendea kanpora ezkondu arren, Rafa Gorrotxategiren postrea nahi izatea. Sektorearen barruan ezagunak gara eta gure produktuak El Corte Ingles saltokietan ere badaude.

Gabonetarako zer daukazue?

Guk betiko turroiak dauzkagu. Gainera, saiatzeko gara beti produktu berriak ateratzen. Aurreko urtean lehenengoak izan ginen ruby txokolatzeko turroia ateratzen (arrosa kolore naturalarekin). Aurten, berriz, gertuko produktu bat egin dugu: ardi latxaren esnearekin, eztiarekin eta intxaurrekin egindako trufazko turroia. Ardi latxaren esnea oso krematsua da, eta zapore berezia dauka. Indarra hartzen ari den

beste produktu bat panetonea da. Hiru urte daramatzagu egiten, eta gero eta gehiago saltzen da.

Beste berrikuntza bat ere egin dugu, urte osora begira. Lehengo urtean hamasei txokolate tableta egin genituen, eta aurten, 60 gramoko lau lata atera ditugu txokolatzeko 24 txapel txikirekin. Turristek bertako produktuak nahi dituzte, eta nahiz eta hemen ez dugun kakaorik, kakaoaren historia luzea dugu. Keinu bat egin nahi izan diogu txapelari ere. Horrela, herria eta aberria egiten dugu eta jendeari gauza horiek gustatzen zaizkio.

Bisiguaren pasadizoa ere kontatu nahiko nuke. Garai batean, oso ohikoa zen Gabonetan bisi-

gua jatea. Duela 50 urte inguru arazoren bat egon zen itsasoan eta arrandegietan ez zegoen bisigurik. Jendea arduratuta zegoen, eta nire aitak esan zuen bisigua egingo zuela. Hostopilezko bisigu bat egin zuen, eta oso modan jarri zen Tolosaldean. Oraindik ere jende askok turroiaz gain, bisiguaren tarta eramaten du.

Jendeak zer eskatzen du gehienbat?

Txokolatzeko turroiak. Batetik, klasikoak dauzkagu: gogorra, gorringoarekin eginga eta biguna. Bestetik, txokolatzeko zazpi ere badauzkagu: azukre gabekoa, trufa ronarekin, mandarinarekin... Mozteko turroiak ere egiten ditugu. Hor gehien intxaurre saltsarena saltzen da.

Zein alde dago Rafa Gorrotxategi turroien eta supermerkatu batekoen artean?

Turroi gogorrean eta bigunean almendraren ehunekoan eta kalitatean aldea egoten da. Gureek %65 almendra edukitzen dute, eta azukrearekin eta eztiarekin egiten ditugu. Beraz, turroiak kalitatezkoak dira. Supermerkatuetako turroiek almendren ehuneko txikiagoa dute, eta eztiaren ordez azukre kopuru handia izaten dute. Trufazko turroiak gurinarekin eta esnegainarekin egiten ditugu. Aldiz, industria handiek margarinak eta beste koipe mota batzuk erabiltzen dituzte. Produktu horiek merkeagoak dira, baina ez dira hain osasungarriak.



HEMEN DA BERRIZ
ERE HOSTOREZKO

BIXIGU TRADIZIONALA

RAFA GORROTXATEGIEN
ERARA EGINDA



RAFA
GORRO
TXATEGI
1680

Tolosan salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Rafa Gorrotxategi
Denda:
Solana Kalea, 7

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus